20 15

ARTELATZAK


Artelatza (Querqus suber) tamaina ertaineko eta hosto iraunkorreko zuhaitz bat da. Jatorria Europako eta Afrikako Mediterraneoko kostaldeetan dauka.

Mediterraneoko basoan parte hartzen du, baina hezetasuna dauka eta ez du hotza ondo jasaten, horregatik, Euskal Herriko iparraldeko klima ozeaniko hezean bizi daiteke. Hala ere, ezin da esan bertako ohiko zuhaitz bat denik, eta hori dela eta, artelatzak estalitako hedadurak eskasak dira.

Ustiapen ekonomikoaren ikuspegiaren arabera, ezaugarri nagusiena artelazkiaren ekoizpena da.

Artelazkia “peridermis” edo hildako zelulen estalki bat da. Hura enborraren kanpoalderantz hazten da eta, bestea, beste, ezaugarri isolatzaileak ditu, horregatik, artelatza baso suekiko oso erresistentea da. Artelazkia ateratzeak ez dio zuhaitzari kalterik eragiten. Hala ere, Euskal Herrian oso ale gutxi daudenez, ez dira merkataritza ustiapenerako erabiltzen.

Artelatzak Gipuzkoan eta Bizkaian murgiltzen dira, bai isolatutako zuhaitz bezala, eta bai baso txikiak eratuz, mendi-hegal eguzkitsuekin eta kostaldetik oso gertu dauden mendixka gailurrekin bat eginez, 280 m altueraraino.





Artelatz bakarra Garate menditik gertu (Getaria). Iturria: F. Garin CC by ND.

Artelatza gehien biltzen diren guneen artean aipatu behar da Aia-Zarautz-Getaria gunea. Bertan, hogei bat kilometro karratuetan banatuta daude, eta esan daiteke, guztira, mila ale inguru daudela, itxura batez, ugalketa espontaneoarekin, nahiz eta gizakiaren jarduera, une batean edo bestean, garrantzitsua izan den.

Gehiago jakiteko: El alcornoque, (querqus suber L, en el País Vasco / Xabier Lizaur, María R. Salaberria. - En: Homenaje a Pedro Monserrat. - Huesca, 1968), p. 627-630.

Artelatzak Aia-Getaria-Zarautz zonaldean, Lizaur&Salaberriaren arabera, 1968. (berdez adierazita).

Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 565116 m // Y: 4793279 m. Geziek, adibide moduan, bi artelatz ale adierazten dute (gainontzekoen baino kolore ilunagoa) Getariako udal mugartean.

